# BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA
# BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

Legezko Gordailua / Depósito Legal BI-1958-1 - ISSN. 1134-8720



## Laburpena / Sumario


| | Orrialdea / Página | |
|---|---|---|
| I. Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa: | 14305 | I. Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia: |
| — Batzar Nagusiak | — | — Juntas Generales |
| — Foru Aldundia: | 14305 | — Diputación Foral: |
| – Xedapen orokorrak | 14305 | – Disposiciones generales |
| – Iragarkiak | 14310 | – Anuncios |
| II. Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa | 14317 | II. Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia |
| III. Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioa | 14336 | III. Administración Autonómica del País Vasco |
| IV. Estatuko Administrazio Orokorra | 14343 | IV. Administración General del Estado |
| V. Justiziako Administrazioa | 14345 | V. Administración de Justicia |
| VI. Bestelako Herri Administrazioak | 14368 | VI. Otras Administraciones Públicas |
| VII. Beste zenbait | — | VII. Varios |


# I. Atala / Sección I

# Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
# Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Foru Aldundia / Diputación Foral

### Xedapen orokorrak / Disposiciones generales

### Kultura Saila

**FORU AGINDUA, 2.578 zenbakiduna, 1966ko irailren 20ko Agindu horren bidez, Bizkaian Eskolako Kirol-Jokoei aplikatu beharreko Diziplinazko Araubidea onesten da.**

Eusko Legebiltzarrak Autonomi Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruz azaroaren 25ean emandako 27/1983 Legeak, bere 7. b). 6 artikuluan, azken horiei eratxikitzen die erakunde erkideek eskolako kirolegitarauei buruz emandako arauak garatu eta betearazteko eskumena.

### Departamento de Cultura

**ORDEN FORAL 2.578/1996, de 20 de septiembre, por la que se aprueba el Régimen Disciplinario de aplicación a los Juegos Deportivos Escolares de Bizkaia.**

El artículo 7.º. b). 6. de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, del Parlamento Vasco, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, atribuye a estos últimos la competencia para desarrollar y ejecutar las normas emanadas de las Instituciones Comunes en materia de programas de deporte escolar.

Hain zuzen ere, Kultura Fisikoari eta Kirolari buruzko otsailaren 19ko 5/1988 Legearen 52. 1 artikuluak, Autonomi Erkidegoaren legeria garatzeko, Lurralde Historikoetako foru organoei eratxikitzen die eskolako kirolerako eta guztiontzako kirolerako egitarauak gertutu, onetsi eta betearazteko eskumena.

Horretaz, kontutan hartuz eskolako kirolaren zehazpenen arabera batzuetan ez dela egokia eskolako kirolari kirol-federazio bakoitzaren kirol-diziplinari buruzko arautegia aplikatzea, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan Eskolako Kirol-Jokoak Foru Aldundiak antolatzen dituela, Kultura Fisikoari eta Kirolari buruzko Legearen 60.1 artikuluan ezarritakoa garatzeko, diziplinazko araubide berezia onetsi behar da Bizkaian Eskolako Kirol-Jokoetan aplikatzeko.

Hori dela bide, hauxe

XEDATU DUT:

**I. kapitulua: Aplikazio eremua**

**1. artikulua**

Bizkaiko Lurralde Historikoan, Eskolako Kirol-Jokoetako lehiaketen diziplinazko araubidea foru agindu honetan jasotako xedapenek arautuko dute; araubide hori ondoko xedapenek ere arautuko dute sorospidez: Eusko Jaurlaritzak horretarako emandako arautegian ezarrita dauden xedapenek eta lurralde bakoitzeko kirol-federazioek onetsitako diziplinazko araudietan jasota dauden xedapenek.

Edozein kasutan ere, artikulu honetan jasotako lehentasun hurrenkerari jarraituko zaio.

**2. artikulua**

Arautegi honetatik sorturiko diziplinari lotuta geldituko dira zentru, elkarte eta klub partehartzaile guztiak nahiz bertako jokalari, prestatzaile, entrenatzaile, zuzendari eta eskuordeak; halaber, diziplina horren menpe geldituko dira Bizkaiko Lurralde Historikoan eskolako kirolari lotutako gainerako pertsona eta erakunde guztiak, jarduera horrekin zerikusia duten jarduketei dagokienez.

**3. artikulua**

Eskolako Kirol-Jokoetan parte hartzen duten erakundeek, bakoitzak bere arauen arabera, zehatzeko ahalgoa egikarituko dute kirolari, afiliatu, teknikari eta euren menpean dauden gainerako pertsonengan.

Beti ere, txosten egokia instruitu beharko da; txosten horrek, berriz, kontraesankorra izan beharko du.

**4. artikulua**

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak, eskudun organoaren bidez, zehapen espedienteak hasteko eskatu ahal izango die Eskolako Kirol-Jokoetan parte hartzen duten klub, federazio, elkartze eta gainerako kirol erakundeei.

Txosten horiek guztiak, erakundeok euren arioz hasitakoak barne, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailari jakinarazi beharko zaizkio.

**II. kapitulua: Abiaburu Orokorrak**

**5. artikulua**

Diziplinazko ahalgoak gertaerak ikertzeko eta erantzuleei zehapen egokia ezartzeko ahalmena eratxikitzen die ahalgo hori duten organo titularrei.

**6. artikulua**

1- Ekintza edo alderazketei ezin izango zaie zehapenik ezarri, baldin eta urratzetzat tipifikatu barik badaude egiten direnean.

En concreto, el artículo 52.º. 1. de la Ley 5/1988, de 19 de febrero, de la Cultura Física y del Deporte, atribuye a los órganos forales de los Territorios Históricos la competencia para la elaboración, aprobación y ejecución de programas de deporte escolar y de deporte para todos, en desarrollo de la legislación de la Comunidad Autónoma.

En este sentido, teniendo en cuenta las especificaciones propias del deporte escolar que determinan que en ocasiones no resulte apropiada la aplicación al mismo de la normativa de disciplina deportiva propia de cada Federación deportiva, así como que los Juegos Deportivos Escolares en el Territorio Histórico de Bizkaia son organizados por la propia Diputación Foral, en desarrollo de las previsiones recogidas en el artículo 60.1 de la Ley de la Cultura Física y del Deporte anteriormente mencionada, procede aprobar un régimen disciplinario especial a aplicar en el desarrollo de los Juegos Deportivos Escolares de Bizkaia.

En su virtud

DISPONGO:

**Capítulo I: Ambito de aplicación**

**Artículo 1**

El régimen disciplinario de las competiciones desarrolladas en el seno de los Juegos Deportivos Escolares en el Territorio Histórico de Bizkaia se regulará conforme a las disposiciones recogidas en la presente Orden Foral y, subsidiariamente, por las establecidas en la normativa emanada a tales efectos del Gobierno Vasco y por las que se recogen en los respectivos reglamentos disciplinarios aprobados por las Federaciones Deportivas territoriales correspondientes.

En todo caso, se seguirá el orden de prelación recogido en este artículo.

**Artículo 2**

Quedan sujetos a la disciplina derivada de la presente normativa, todos los Centros, Asociaciones y Clubes participantes, sus jugadores, preparadores, entrenadores, directivos, delegados, así como las demás personas y entidades vinculadas al Deporte Escolar en el Territorio Histórico de Bizkaia, respecto de sus actuaciones en relación con dicha actividad.

**Artículo 3**

Las entidades participantes en los Juegos Deportivos Escolares ejercerán la potestad sancionadora sobre sus deportistas, afiliados, técnicos y demás personas que de ellos dependan en virtud de cualquier tipo de relación, de conformidad con las normas con las que se hayan dotado.

En todo caso, deberá procederse a la previa instrucción del correspondiente expediente, que deberá tener carácter contradictorio.

**Artículo 4**

El Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, a través del órgano competente, podrá requerir a los clubes, federaciones, agrupaciones y demás entidades deportivas participantes en los Juegos Deportivos Escolares la incoación de expedientes sancionadores.

Todos los expedientes, incluso los iniciados de oficio por tales entidades, deberán ser comunicados, en todo caso, al Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

**Capítulo II: Principios generales**

**Artículo 5**

La potestad disciplinaria atribuye a los órganos titulares de la misma las facultades de investigar los hechos y de imponer a los responsables, en su caso, la sanción que corresponda.

**Artículo 6**

1. No podrá imponerse sanción alguna por acciones u omisiones no tipificadas como infracción con anterioridad al momen-

Zentzagarriak ere ezin izango dira ezarri, arauren batean ezarrita agertzen ez direnean hutsunea gertatu baino lehen.

2- Ezin izango da zehapen bat baino gehiago ezarri gertaera, urratze edo hutsune berberagatik, zehapen nagusi baten osagarriak direnean izan ezik (nolanahi ere, arauren batek jasota izan beharko du aukera hori).

**7. artikulua**

Xedapen edo arauketa zehatzaileak atzera eraginezkoak izango dira urratzaileari laguntzen diotenean, horiek indarrean sartzean ebazpen irmoak emanda egon arren.

Zehapen batek proportziotasun zuzena izan beharko du bera eragin duen hutsune edo urratzearekin, baita hutsune edo urratze horren inguruabarrekin ere.

**III. kapitulua: Erantzukizuna**

**8. artikulua**

Bizkaian Eskolako Kirol-Jokoetan parte hartzen duten erakundeek erantzukizuna izango dute eurei zuzen nahiz zeharka loturiko pertsonek egindako egintza edo alderauzketetan; hala ere, pertsona horiei ere bidezko zehapen guztiak ezarri ahal izango zaizkie.

**9. artikulua**

Bizkaian Eskolako Kirol-Jokoetan parte hartzen duten erakundeei, aurreko artikuluaren arabera duten erantzukizuna dela bide, zehapenak ezarri ahal izango zaizkie, behar bezala tipifikaturiko hutsune edo urratzeak egiten dituztenean.

**10. artikulua**

Bizkaian Eskolako Kirol-Jokoetan parte hartzen duten erakundeek erantzukizuna izango dute lehiaketaren garapen egokian eta eurei loturiko pertsonen portaeran.

**IV. kapitulua: Urratzeak eta zehapenak**

**11. artikulua**

1. Hutsuneak izango dira ondokoa urratzen duten ekintza edo alderazketak: xedapen honetan hizpaturikoa, Eskolako Kirol-Jokoetako lehiaketa bakoitzaren arau zehatzak eta eskolako kiroletan eskumena duten organoek emandako arauak.

2. Urratzeak izango dira aurreko atalean inkardinatu ezin diren ekintza edo alderazketak; baldin eta, Bizkaian Eskolako Kirol-Jokoak egiten direnean, horiek zaurtu, eragotzi, okertu edo nahasten badituzte. Halaber, urratzeak izango dira joko horietan parte hartzen duten pertsona nahiz erakundeen arteko harremanak kaltetu zein gutxiesten dituzten ekintza edo alderazpenak.

**12. artikulua**

Hutsune eta urratzeak kalifikatzean, kontutan izango dira erruduntasunaren inguruabar aldarazleak. Horretarako:

A. Kirol-modalitate bakoitzari sorospidez aplikatu ahal zaizkion xedapen zehatzaileek jasotako inguruabarretan ezezik, ondokoetan ere salbutu egingo da erantzukizuna:

a) Urratzea edo hutsunea eroaldi batean edota buruko desoreka iragankor baten ondorioz egiten denean.

b) Urratzea edo hutsunea egintza zilegiren bat betearaztean egiten denean, hau da, ustekabean eta egiteko asmorik gabe egiten denean.

to de producirse, ni tampoco se podrán imponer correctivos que no estén establecidos por una norma anterior a la fecha de comisión de la falta.

2. No podrá imponerse más de una sanción por un mismo hecho, infracción o falta, salvo en los supuestos de sanciones accesorias a una principal, cuando así quede determinado.

**Artículo 7**

Toda disposición o reglamentación sancionadora tiene carácter retroactivo en todo aquello que favorezca al infractor, aunque al entrar en vigor la misma, ya hubiesen recaído resoluciones firmes.

Toda sanción deberá guardar proporcionalidad directa tanto con la falta o infracción por la que es impuesta como con las circunstancias en las que se cometiere tal infracción o falta.

**Capítulo III: Responsabilidad**

**Artículo 8**

Las entidades participantes en los Juegos Deportivos Escolares de Bizkaia serán responsables de las acciones u omisiones cometidas por todas las personas relacionadas directa o indirectamente con las mismas, sin perjuicio de la imposición de sanciones que procedan contra tales personas.

**Artículo 9**

Las entidades participantes en los Juegos Deportivos Escolares de Bizkaia, en virtud de la responsabilidad que les es propia según el artículo anterior, podrán ser sancionados por la comisión de faltas o infracciones debidamente tipificadas.

**Artículo 10**

Corresponde a las entidades participantes en los Juegos Deportivos Escolares de Bizkaia responder del buen desarrollo de la competición y del comportamiento de las personas relacionadas con ellas.

**Capítulo IV: Infracciones y sanciones**

**Artículo 11**

1. Son faltas las acciones u omisiones que vayan en contra de lo estipulado en la presente disposición, de las normas específicas de cada competición que forme parte de los Juegos Deportivos Escolares y de las reglas emitidas por los órganos competentes en materia deportiva escolar.

2. Son infracciones las acciones u omisiones, no incardinables en el apartado anterior, que, durante el desarrollo de los Juegos Deportivos Escolares de Bizkaia, vulneren, impidan, tergiversen o perturben de algún modo el normal desarrollo del mismo, y las que perjudiquen ó menoscaben las relaciones entre personas y/o entidades participantes en tales Juegos Deportivos Escolares.

**Artículo 12**

En la calificación de las faltas e infracciones se tendrán en cuenta las circunstancias modificativas de la culpabilidad que pudieran concurrir en las mismas. A tales efectos:

A. Se consideran circunstancias eximentes de la responsabilidad, además de las recogidas en las propias disposiciones sancionadoras que, con carácter subsidiario puedan aplicarse a cada modalidad deportiva, las siguientes:

a) La comisión de la infracción o falta en estado de enajenación o en situación de trastorno mental transitorio.

b) Comisión de la infracción o falta al ejecutar un acto lícito, por mero accidente y sin culpa ni intención de causarla.

c) Beharrizan, halabehar edota gainditu ezineko beldurraren ondorioz egiten denean.

B) Inguruabar aldarazle aringarriak izango dira:

a) Lehendik zehapenik ez izatea.

b) Urratzaileak damua erakustea modu nabarmenean, hutsune edo urratzea egin eta batera.

c) Eskura dituen bitarteko guztiak eskaintzea hutsune edo urratzearen ondorioz sorturiko egoera konpontzeko.

d) Benjamin edo Kimu mailakoa izatea.

e) Berehala onartzea arbitro edo epaileak lehiaketan ezarritako zehapena.

f) Berehala erantzutea probokazio bati.

g) Garrantziaren arabera, aringarritzat jo daitezkeen gainerako inguruabar guztiak.

C) Inguruabar aldarazle astungarriak izango dira:

a) Berrerorlea izatea.

b) Arbitro edo epaileen erabaki nahiz zehapenak berehala ez onartzea.

c) Hutsune edo urratzeen ondorioz sorturiko egoeren konponketa galeraztea.

d) Ikusleak zirikatzea.

e) Itxurak egitea hutsune edo urratzeak eragiteko.

f) Lehiaketaren edo jardueraren garapen ezohizkoa eragitea.

g) Agintekeriaz edo konfidantza gehiegirekin aritzea.

h) Garrantziaren arabera, astungarritzat jo daitezkeen gainerako inguruabar guztiak.

**13. artikulua**

Diziplinazko zehapenak ezartzeko, beharrezkoa izango da ziodun ebazpenen bat egotea, eta ebazpen horrek amaiera emango dio espedienteari. Espediente hori interesatuei jakinaraziko zaie; interesatuei, halaber, eurek aukeraturiko pertsonaren laguntza bermatu beharko zaie.

Zehapenak urratzaileak hezi, aurrez ohartu eta euren portaera zuzentzeko izango dira.

**14. artikulua**

1. Zehapen motak:

- Zentzarazpenak.
- Deskalifikazioak.
- Kentzeak.
- Aldi baterako ohilketak.
- Jokoetan parte hartzeko ezgaikuntza.
- Dirulaguntzen galerak.

2. Zehapenek hiru gradu dituzte: gutxienekoa, erdikoa eta gehienekoa. Bestelakorik xedatu ezean, erdiko mailan ezarriko dira. Zehapenak ebazpenen batek ezarriko ditu, eta ebazpen hori ematen den egunetik aurrerako partidu guztietan bete beharko dira.

Pertsonaren batek berari ezarritako zehapena guztiz betetzen ez badu denboraldiaren amaierarako, hurrengo denboraldian edo denboraldietan bete beharko du, lehengo izaki partehartzailean nahiz besteren batean.

Jardunaldiak lehiaketa ofizialekoetan oinarrituta zenbatuko dira.

**15. artikulua**

Ondoko zehapenak Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren eskudun organoak bakarrik ezarri ahal izango ditu, bere arioz nahiz kasuan kasuko modalitateko Federazioaren Kirol-Diziplinazko Batzordeak eskatuta, administrazio espediente egokia tramitatu ondoren: lehendik emandako dirulaguntzak edota izaki partehartzaileek jaso ditzaketenak galtzea, 16.2, 18.e), 20.2, 24, 25.c) eta 30. artikuluetan jasotako kasuetariko batean erortzeagatik; deskalifikazioak, 18.e) eta 24. artikuluak; zentrua partaidetzarik gabe uztea eskolako kirol-egitarauan, 33 eta 34. artikuluak. Artikulu horiek guz-

c) Concurrencia de estado de necesidad, fuerza irresistible o miedo insuperable.

B. Son circunstancias modificativas atenuantes:

a) No haber sido sancionado anteriormente.

b) Haber mostrado el infractor su arrepentimiento de modo ostensible e inmediato a la comisión de la falta o infracción.

c) Disposición de todos los medios a su alcance para remediar la situación creada con la falta o infracción.

d) Pertenecer a las categorías Benjamín y Alevín.

e) Aceptar inmediatamente la sanción impuesta por el árbitro o juez en el desarrollo de la competición.

f) Responder de modo inmediato a una provocación suficiente.

g) Cualesquiera otras que por su relevancia sean merecedoras de tal consideración.

C. Son circunstancias modificativas agravantes:

a) Ser reincidente.

b) No aceptar inmediatamente las decisiones o sanciones de los árbitros o jueces.

c) Impedir la resolución de las situaciones creadas como consecuencia de las faltas o infracciones.

d) Incitar al público.

e) Fingir hechos causantes de posibles faltas o infracciones

f) Ser causante de un anormal desarrollo de la competición o actividad.

g) Obrar con abuso de autoridad o de confianza.

h) Cualesquiera otras que por su relevancia sean merecedoras de tal consideración.

**Artículo 13**

Las sanciones disciplinarias sólo podrán imponerse en virtud de resolución motivada que dará fin al correspondiente expediente. Dicho expediente contará, en todo caso, con audiencia a los interesados, a quienes se deberá garantizar asistencia por la persona que designen.

Las sanciones tendrán carácter educativo, preventivo y correctivo.

**Artículo 14**

1. Las sanciones podrán consistir en:

- Amonestaciones.
- Descalificaciones.
- Destituciones.
- Expulsiones temporales.
- Inhabilitación para participar en los Juegos.
- Pérdida de subvenciones.

2. Las sanciones tienen tres grados: mínimo, medio y máximo. Salvo disposición en contrario, se presumen impuestas en su grado medio y deberán cumplirse en los encuentros inmediatamente posteriores a los de la fecha de la resolución en virtud de la cual fueran impuestas.

Si un persona no terminara de cumplir la sanción a la misma impuesta dentro de la temporada, habrá de hacerlo en el siguiente o siguientes, sea en el mismo Ente participante o en distinto.

Las jornadas se computarán por las de competición oficial.

**Artículo 15**

Las sanciones consistentes en la pérdida de subvenciones ya otorgadas o que los entes participantes pudieran recibir por incurrir en alguno de los supuestos recogidos en los artículos 16.2, 18.e), 20.2, 24, 25.c) y 30, en descalificaciones de los artículos 18.e) y 24, o en la expulsión del centro de toda participación en el programa de Deporte Escolar de los artículos 33 y 34, todos ellos de la Orden de 29 de julio de 1985, del Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco, sobre Régimen Disciplinario de las competiciones de Deporte Escolar, sólo podrán ser impuestas por el órgano

tiak Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailak Eskolako Kirolaren barruko Lehiaketen Diziplinazko Araubideari buruz 1985eko uztailaren 29an emandako Aginduan jasota daude.

**16. artikulua**

Jokalari, hezitzaile, eskuorde, talde, zentru eta gainerako partaideek egindako hutsune edo urratzeen ondorioz ezarri beharreko zehapenen araubidea hauxe izango da: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailak Eskolako Kirolaren barruko Lehiaketen Diziplinazko Araubideari buruz 1985eko uztailaren 29an emandako Aginduaren II. Tituluko I, II eta III. Sekzioetan ezarritakoa.

**V. kapitulua: Administrazio Prozedura**

**17. artikulua**

Kiroletako diziplinazko prozedurak hiru fase ditu:

a) Hastea.

b) Instruitzea.

c) Ebaztea.

**18. artikulua**

1. Prozedura diziplinazko eskudun organoak hasiko du, bere arioz, alderdiren batek eskatuta —ziodun salaketa baten bidez edo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak eskatuta. Ebazpen batek agindu beharko du prozedura hasteko eta, ebazpen horretan, instruktorea eta idazkaria izendatuko dira; ebazpenak, halaber, aditzera eman beharko du horiek ez direla erori ondoko artikuluetan aipaturiko abstentzio edo ezespen karietan: Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28 eta 29. artikuluetan.

2. Diziplinazko eskudun organoak kautelazko neurri egoki guztiak hartzeko ahalmena izango du.

3. Espedientea hasteko agintzen duen ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie; horrela, hamar (10) eguneko gehieneko epea izango dute euren legebidezko interesen defentsarako bidezko deritzeten alegazioak azaltzeko.

**19. artikulua.**

Espedientea hasi ondoren, eta behar diren kautelazko neurri guztiak hartu eta gero, instruktoreak, hamar (10) eguneko gehieneko epean, frogazko fase egokia irekitzeko aginduko du, komenigarri baderitzo; fase horretan, beharrezko diligentzia guztiak egingo dira gertaerak argitu eta erantzukizunak zehazteko.

Diziplinazko espedientea bururatzeko gertaera garrantzitsuak, bestalde, zuzenbidean onartzeko moduko edozein frogabide erabiliz egiaztatu ahal izango dira, instruktore edo idazkariak adierazitako leku, egun eta orduan.

**20. artikulua**

1. Frogako fasea bukaturikoan, instruktoreak ziodun probidentzia emango du. Probidentzia horretan, pertsona erantzuleak, egindako hutsune edo urratzeak eta zehapen egokiak ezarriko dira; bestela, aditzera emango da ez dagoela erantzukizunik.

2. Karguen plegua azaltzeko gehieneko epea hilabetekoa (1) izango da; epe hori luzatu egin daiteke espedientea hasteko agindu duen organoak emandako ebazpen baten bidez.

3. Erantzukizuna zehazten duen ebazpena —karguen pleguak adieraziko du erantzukizunik dagoen ala ez— hamar (10) eguneko epean jakinarazi beharko da, plegu hori ezagutzeko aukera ematen duen edozein bide erabiliz.

competente del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, de oficio o a instancia del Comité de Disciplina Deportiva de la Federación de la modalidad de que se trate, tras la tramitación del correspondiente expediente administrativo.

**Artículo 16**

El régimen de las sanciones a imponer por las faltas e infracciones cometidas por los jugadores, educadores, delegados, equipos, centros y demás personas participantes será el fijado en las Secciones I, II, y III del Título II de la Orden de 29 de julio de 1985 del Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco, sobre Régimen Disciplinario de las competiciones de Deporte Escolar.

**Capítulo V.- Procedimiento Administrativo**

**Artículo 17**

El procedimiento disciplinario deportivo consta de tres fases:

a) Incoación.

b) Instrucción.

c) Resolución.

**Artículo 18**

1. La incoación se realizará por el órgano disciplinario competente, de oficio o a instancia de parte, por medio de denuncia motivada o a requerimiento del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia. La incoación se abre por resolución que deberá contener, en todo caso, nombramiento de Instructor y Secretario, así como la indicación de no hallarse incursos en causa alguna de abstención o recusación de los artículo 28 y 29 de la ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

2. El órgano disciplinario competente tendrá la facultad de adoptar las medidas cautelares que se estimen oportunas.

3. La resolución ordenando la incoación del expediente será notificada a los interesados al objeto de que en el plazo máximo de diez (10) días aleguen lo que estimen oportuno en defensa de sus legítimos derechos.

**Artículo 19**

Incoado el expediente, y previa la adopción, en su caso, de las medidas cautelares que se estimen precisas, el Instructor, en el plazo máximo de diez (10) días, ordenará la apertura de la correspondiente fase probatoria, cuando así lo estime conveniente, en la cual se practicarán cuantas diligencias sean necesarias para el esclarecimiento de los hechos y determinación , en su caso, de responsabilidades.

Los hechos relevantes para la substanciación del expediente disciplinario podrán acreditarse por cualquier medio de prueba admisible en Derecho, en el lugar, día y hora señalados al efecto por el Instructor y/o Secretario.

**Artículo 20**

1. Concluida, en su caso, al fase probatoria, el Instructor dictará Providencia motivada en la que fijará las personas responsables, las falta o infracciones cometidas y las sanciones correspondientes, o señalará, en su caso, la inexistencia de responsabilidad.

2. El plazo máximo para la formulación del correspondiente Pliego de Cargos será de un (1) mes, plazo ampliable por resolución del órgano que ordene la incoación del expediente.

3. La resolución por la que se determina la responsabilidad, en su caso, existente según se derive del correspondiente pliego de cargos, será notificada, por cualquier medio que permita tener constancia del mismo, en el plazo de diez (10) días.

**21. artikulua**

Diziplinazko espedienteari azkena ematen dion ebazpenaren aurka, ondoko aginduan ezarritako erreklamazio eta errekurtsoen sistema erabili ahal izango da: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailak Eskolako Kirolaren barruko Lehiaketen Diziplinazko Araubideari buruz 1985eko uztailaren 29an emandako Agindua. Bestela, kasuan-kasuan indarrean dagoen arautegian ezarritako sistema erabiliko da.

XEDAPEN ERANTSIA

*Bakarra.*—Bizkaiko Foru Aldundiko eskudun organoa, foru agindu honen ondoreetarako (4, 15 eta 18. artikuluak), Kultura Saileko Kirol eta Gazteri Zuzendaritza Nagusia izango da.

AZKEN XEDAPENA

*Bakarra.*—Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan sartuko da indarrean.

Bilbon, 1996ko irailaren 20an.

Kulturako foru diputatua
TOMAS URIBEETXEBARRIA MAIZTEGI

(I-2.379)

**Artículo 21**

Contra la resolución que pone fin al correspondiente expediente disciplinario, se podrá utilizar el sistema de reclamaciones y recursos previsto en la Orden de 29 de julio de 1985 del Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco, sobre Régimen Disciplinario de las Competiciones de Deporte Escolar y, en su defecto, en la normativa en cada caso vigente.

DISPOSICION ADICIONAL

*Unica.*—El órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia a los efectos de la presente Orden Foral (artículos 4, 15 y 18) será la Dirección General de Deportes y Juventud del Departamento de Cultura.

DISPOSICION FINAL

*Unica.*—La presente Orden Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”.

En Bilbao, a 20 de septiembre de 1996.

El Diputado Foral de Cultura,
TOMAS URIBEETXEBARRIA MAIZTEGI

(I-2.379)

# Iragarkiak / Anuncios

## Gizarte Urgazpenerako Foru Institutua

IRAGARKIA

Toki Araubideari buruzko arloan indarrean dirauten legezko xedapenen testu bategina onetsi zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Erret Dekretuaren testuko 122 eta hurrengo artikuluen arabera, honako deialdi hau eraenduko duten administrazio klausula berezien pleguak jendaurrera azaldu dira, zortzi egunetako epean zehar. Adierazitako epearen barruan erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak (G.U.F.E.) ebatsiak izango direlarik.

Aldi berean, aipaturiko 122. artikuluko 2. lerroaldearen itzalpean, lehiaketa publikoa iragarri da; hala eta guztiz ere, lizitazioa geroratu egingo da, administrazio klausula berezien pleguen aurka erreklamazioren bat azaltzen bada.

1. *Erakunde adjudikatzailea:*

a) Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (G.U.F.E.).

b) Espedientea zenbakia: 1/1996.

2. *Kontratuaren xedea:*

a) Xedearen azalpena: Kudeaketa modu egokiena erabakitzeko, zentroak erakunde autonomiadun batetik kudeatzeko nahiz zentroak Gizarte Egintza Sailetik kudeatzeko foru titulartasuna duten gizarte zentroen kudeaketari buruzko ikerketa egiteko aholkularitza eta laguntza teknikoa.

b) Burutzeko epea edo emateko azken data: 1996.eko abenduaren 15a.

3. *Tramitazioa, prozedura eta adjudikazio-era.*

a) Tramitazioa: Arrunta

b) Prozedura: Irekia

c) Era: Lehiaketa.

4. *Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.*

Zenbateko osoa: 5.000.000 pezeta.

5. *BermeaK:*

Behin-behinekoa: 100.000 pezeta.

6. *Dokumentazio eta informazio bideak.*

## Instituto Foral de Asistencia Social

ANUNCIO

En cumplimiento de los artículos 122 y siguientes del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local, se expone al público durante el plazo de ocho días, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que ha de regir la presente convocatoria. Dentro del expresado plazo podrán presentarse reclamaciones, que serán resueltas por el Instituto Foral de Asistencia social de Bizkaia (I.F.A.S).

Al mismo tiempo, al amparo del párrafo 2) del citado artículo 122, se anuncia concurso, si bien la licitación quedará aplazada cuanto resulte necesario en el supuesto de que se formulen reclamaciones contra el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

1. *Entidad Adjudicadora:*

a) Instituto Foral de Asistencia Social de Bizkaia (I.F.A.S.).

b) Número de expediente: 1/1996.

2. *Objeto del contrato:*

a) Descripción del objeto: Consultoría y asistencia técnica para la realización de un estudio sobre la gestión de centros sociales de titularidad foral para adoptar la estrategia de gestión más adecuada, gestionar los centros desde un Organismo Autónomo o gestionar los centros desde el Departamento de Acción Social.

b) Plazo de ejecución o fecha límite de entrega: 15 de diciembre de 1996.

3. *Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación:*

a) Tramitación: Ordinaria.

b) Procedimiento: Abierto.

c) Forma: Concurso.

4. *Presupuesto base de licitación:*

Importe total: 5.000.000 de pesetas.

5. *Garantías:*

Provisional: 100.000 pesetas.

6. *Obtención de la documentación e información:*